

Markel Lizarralde Querejeta

E maila • **Aipamena**

Markel Lizarralde 2011ko Martxoaren 5ean jaio zen Beasainen. Alkartasuna Lizeoko LH5.eko ikaslea da. Mutil alaia, bizia eta bere lagunen lagun dena. Oso gogoko ditu kirolak, batez ere futbola, eta Beasain K.E klubeko futbol eskolako jokalaria da. Bertsolaritza gogoko du eta Amaia Agirreren klaseetan disfrutatu eta asko ikasten du.



Doinua: Mila kilo zorion

GOIHERRI

Mendiz inguratuta
leku zoragarri
Batetik Txindoki ta
bestetik Aizkorri
Euskal Herri erdian
18 herri
Guztiek bat
eginda sortzen da Goierri

Zaldibin mondejuak
baita ere Ataunen
Ormaiztin odolkiak
baita Beasainen
Gazta onenak, berriz,
Idiazabalen
eusko label dexente
sortzen dira hemen.